

*You do death alone,  
but I coulda helped her with the dyin' part.*  
Jimmy Markum (Mystic River, 2003)

**BARNEKALDEA. IGERILEKUA. ARRATSALDEA**

GIZON bat (33) eta neska txiki bat (4) uretan daude. Biak txano barregarri horietakoak daramatzate, bata laranja eta beste beltza. Umeak erdi-erdian bihotz arroxak handi bat duen marradun bainujantzia darama.

Umea igeri egiten ikasten dabil, gaur da, igeri egiten duen bitartean burua uretan sartzen duen lehen eguna. Hori dela eta horizontalean egotea, etzanda, errexagoa egiten zaio. Azkar doa. Beldurra dela eta arinegi GIZONarengan mugitzen da.

**AITA (harro)**

Oso ondo pitxin!

Neska bere aitaren besoetara iritsi da. Begiak urez beteta ditu, ur azpian ireki ditu, baina igerileku modernoek ez daukate lehengoek zeukaten hainbeste kloro.

**UMEA (oso pozik)**

I can swim. I can put  
my head in the water.  
How did I do aita?

**AITA**

Fenomeno, fenomeno, fenomeno!

**BARNEKALDEA. IGERILEKUKO DUTXA. ARRATSALDEA**

Biak biluzik daude dutxa batean sartuta, dena xaboez beteta dago eta umeak ile guztia apar beteta dauka.

**UMEA (negarrez)**

I am closing my eyes!  
aitaaaa!  
Don't do that

**AITA**

Naaaaaia, xaboia  
kendu behar duuuugu.  
Xaboia begietan  
sartuko zaizu  
begiak ez badituzu  
ixten.

**UMEA**

I know.

Bukatu dute. Dutzatik irten eta eskuohial uzuri batekin lehortzen dira.

**AITA**

Kontuz ibili behar  
zara xaboiarekin  
maitxia. Beti esaten  
dizut. Begiak itxi  
eta burua atzera bota.

**UMEA**

I know. I will  
keep it on my head.

Umeak behatz batekin bere lokian kolpetxo batzuk ematen ditu.

**KANPOKALDEA. 92nd STREET BETWEEN MADISON & PARK. ARRATSALDEA**

Oso egun beroa da. Garai viktoriarreko etxeen eskailerak kaletaraino iristen dira. Umeak bere aitaren eskua helduta dauka. Biak ilea bustita daukate.

**UMEA**

Are we going to  
go to the ice-cream  
store, aita?

**AITA**

Bai. Zuk zer hartuko duzu?

**UMEA**

Mango. No. No. Wait.

Vanilla. I want Vanilla.

Semaforoa gorri jarri da eta kale-kantoian itxaron behar dute.

**AITA**

Nor da maman-en maman?

**UMEA**

mmmmmm.....

Mamyyyyyyyy!!!!

**AITA**

Bai maitxia!

oso ondo.

Eta, nor da maman-en

aita?

**UME**

mmmmmmmm.....

I dont'k know.

**AITA**

Bai maitxia, badakizu

pentsatu.

**UMEA**

Papy!

**AITA**

Bai maitxia!

ederki!

Eta aitaren maman?

**UMEA**

I know it!

Amama. A-ma-ma.

**AITA**

ederki bihotza!

**UMEA**

And who is aita's aita?

I know. I know.

**AITA**

nor da ba?

**UMEA**

Aitor!

**AITA (barrezka)**

Ez maitxia. Aitor aitaren  
anaia da. Aita's brother.  
Aitaren aita  
aitxitxe Jon da...  
...zen....da... Jon,  
ai-txi-txe Jon!

**UMEA**

....

**AITA**

Baina zuk aitxitxe Jon  
ez duzu inoiz ikusi

**UMEA**

Why, aita?

**AITA**

Aitxitxe Jon hilda  
dagoelako, pitxin.

**UMEA**

Is he dead?

**AITA**

Bai, Naia. Hilda dago

**UMEA**

Did somebody  
step on him?

**AITA (barrezka)**

Ez maitxia.  
Aitxitxe Jon ez zen  
inurriak bezala hil.  
Denok ez gara horrela  
hiltzen.

**UMEA**

and so?  
what happened?

**AITA**

Aitxitxe Jon gaixorik  
zegoen.

**UMEA**

and the médicament?

**AITA**

Saiatu ginen,  
baina ez zuten  
ezer egin.  
Oso gaixorik zegoen.

**UMEA**

And then he died?

**AITA**

Bai

**UMEA (azalpena ematen)**

He died!  
He is never going  
to come back again.  
He is sleeping.

**AITA**

Bai maitxia.

**UMEA (azalpena ematen)**

He died!He is never going  
to come back again.  
He is sleeping now.

**AITA**

Bai bihotza.

**UMEA**

Sleeping forever!!

**AITA**

Bai. Lotan dago.

**UMEA (azalpena ematen)**

Now I know aitxitxe Jon  
and I will keep it  
on my head.

